

PROBA ESPEZIFIKOA

2022ko PROBA

**ARTEAREN
HISTORIA**

PROBA

ERANTZUNAK





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK GORAKOAK

2022ko MAIATZA

ARTEAREN HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2022

HISTORIA DEL ARTE

Artearen Historia 2022
Probaren iraupena: ordubete

Probak bi atal ditu:

1. atala. Bi irudi eskaintzen dira, eta haietako bati iruzkina egin behar zaio.

Atal honek 10etik 5 puntu balio du.

2. atala. Bi gai proposatzen dira, eta haietako bat garatu behar da. Atal honek

10etik 5 puntu balio du.

1. atala:

AZTERTU ETA IRUZKINDU BI IRUDI HAUETAKO BAT: (5 puntu).

- Sailkatu obra, eta, horretarako, adierazi estiloa eta gutxi gorabehera noizkoa den.

- Egin obraren azterketa formala eta ikonografikoa.

- Azaldu ezazu, laburki, obra hau egin zen garaiko testuinguru historiko-artistikoa.

A)





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK GORAKOAK

2022ko MAIATZA

ARTEAREN HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2022

HISTORIA DEL ARTE

B)



2. atala:

PROPOSATZEN ZAIZKIZUN BI GAI HAUEN ARTETIK BAT GARATU BEHAR DUZU: (5 puntu).

A.- Euskal eskulturagintza XX. mendean.

B.- Barrokoa Italian:

- Bernini eta Borromini.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK GORAKOAK

2022ko MAIATZA

ARTEAREN HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2022

HISTORIA DEL ARTE

EBAZPENA ARTEAREN HISTORIA (2022ko maiatza)

ZUZENKETARAKO IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK

Zati praktikoa: proposatutako irudiari erantzungo zaio, betiere honakoa kontuan hartuta: testuinguru historiko-kulturala, lanaren iruzkin teknikoa, hala ikuspuntu formaletik nola irudiaren esanahiari dagokionez, irudia dagokion estiloan kokatzea, garaia eta kronologia-data zehaztuz eta, hala badagokio, baita egilea ere.

Zati teorikoa: Proposatutako galderari argitasun eta koherentziaz erantzungo zaio, eta zehatz-mehatz frogatuko da galderaren funtsezko puntuak menderatzen direla eta, hala badagokio, baita estilo horretako egile eta lan aipagarrien ezaugarriak ere, betiere dagokion hiztegi zehatza erabiliz.

Hona hemen zati bakoitzari emango zaion **puntu kopurua:**

Zati praktikoa: gehienez 5 puntu.

Zati teorikoa: gehienez 5 puntu.

1. atala:

AZTERTU ETA IRUZKINDU BI IRUDI HAUETAKO BAT: (5 puntu).

- Sailkatu obra, eta, horretarako, adierazi estiloa eta gutxi gorabehera noizkoa den.
- Egin obraren azterketa formala eta ikonografikoa.
- Azaldu ezazu, laburki, obra hau egin zen garaiko testuinguru historiko-artistikoa.

A)





ERANTZUNA IRUDIA: Oñatiko Unibertsitatea. Kanpoaldea.

- Oñatiko Sancti Spiritus Unibertsitatearen fatxada nagusia, Gipuzkoa, Euskal Herria.
- 1543. urtean hasi ziren eraikitzen, eta Domingo de la Carrera hargintza-maisuak eta Pierre Picart eskultoreak parte hartu zuten.
- Errenazimentua, estilo platereskkoa. Arkitektura.

Oñatiko Unibertsitatea Euskal Herriko Errenazimentu garaiko artearen aztarnarik adierazgarrienetakoa dugu, ez arkitekturarengatik bakarrik, baita Errenazimentu garaiko izaeraren erakunderik nagusietarikoa izateagatik ere.

Rodrigo Mercado de Zuazola, Oñatin jaio zen XV. mendearen bukaeran, eta erlijio eta politika arloetan ospetsu izan zen. Zuazola bera dugu Unibertsitatearen fundatzaile, 1548. urtean. Bertan, hiru mendez, zuzenbidea, medikuntza, filosofia, teologia eta letra-ikasketak irakatsi ziren.

Harlanduzko aparailu eta oso modu finean landutako beste elementu batzuen harlanduarekin kontrastea egiten du: izkinak, baoen inguruak eta apaindura-elementuak. Fatxada nagusiak, egileen botere eta handinahiaren erakusle, hiru atal ditu: erdigunekoa eta bi dorre muturretan. Erdikoan, tradizio gotikoari jarraituz, apaindutako bi kontrahorma interesgarri daude, eta eraikinaren muturretan beste bi, erdikoak baino are politagoak. Multzoa klasikoa da, oro har, baina gailurreria gotikoaren eragina nabari da atariko dorretxeen antolamenduan, alboetako kontrahormetan dagoen edertasunagatik eta garaieragatik. Atariak hiru plano ditu bata bestearen gainean; bigarrena nabarmentzen da. Han, On Rodrigo gotzainaren irudi bat dago hizketan diharduela kasetoiz apaindutako zirkulu-erdiko arkuaren azpian. Azpimarratzekoa da Karlos V.aren armarrria ere, Unibertsitateko patroia eta garaiko errege baitzen. Sarrerako bi pilastrak eta muturretakoak dira fatxadako elementurik apainduenak. Santuen eta bertuteen alegorien 30 estatua daude, eta gainera mitologia-erliebeak. Bikainetarikoa Herkulesen lanei eskainitakoak dira.

Aro Modernoko garai horretan Antzinate Klasikoko printzipioak berreskuratu ziren, eta humanismoaren bitartez eguneratu, tradizio kristauari muzin egin gabe, baina, Erdi Aroko erlijioaren nonahikotasunaren ordean, munduari eta gizakiari dagozkien balioak baieztatu ziren.

Bi gauza aipatu behar ditugu Euskal Herriko XVI. mendeko egoeraz jabetzeko: hazkunde demografikoa eta, berarekin batera, hazkunde ekonomikoa gertatu zirela. Jende asko zegoenez, emigrazioa areagotu zen, eta, horrekin, beste lekuetako eragina heldu zen, bereziki Italiarena. Eliza berri asko egin ziren, gotiko estiloan gehienak, baina plateresko forma eskultoriko berriekin dekoratuak (portadak, hilobiak eta erretaulak). Elizekin batera arkitektura zibila aipatu behar da, jauregi eta udaletxeak egin zirelako, baina baita estilo horretako eraikinik bereziena ere, Oñatiko Unibertsitatea. Hargin eta eskultore askoren lan horretan fundatzailearen espiritu humanista ikus daiteke, baita elementu profano eta sakratuen arteko nahasketa ere.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK GORAKOAK

2022ko MAIATZA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2022

ARTEAREN HISTORIA

HISTORIA DEL ARTE

B)



ERANTZUNA - IRUDIA: F. de Goya: *Maiazaren 3ko fusilamenduak*

Neoklasizismoa/ Erromantizismoa. Pintura. Espainia.

- *Maiazaren 3ko fusilamenduak Madril*. (1814). "Príncipe Pío mendiko fusilamenduak" izenarekin ere ezagutzen da.
- Oihal gaineko olio. 266 x 345 cm. • Museo del Prado, Madril.
- Egilea: Francisco de Goya (1746-1828).

Francisco de Goyak (1746-1828) Espainiako XVIII. mendeko artearen ordezkari gorenak Zaragoza eta Madril izan zituen, funtsean, bizileku eta lantoki. 1770ean Italiara joan zen. Lehen aldietan rokoko eta neoklasizismoarekin lotu izan da, eta helduaroan, berriz, erromantizismoarekin. Goyak estilo bere-berea sortu zuen, eta, bere artearekin, modernitateko bideak aurreratu zituen: errerealismoaren, inpresionismoaren eta espresionismoaren hainbat ezaugarriren aitzindari izan zen, baita surrealismoarenak eta informalismoarenak ere. Teknika eta genero guztiak landu zituen. Bere obra estilo batera ezin da mugatu, baina hertsiki lotuta dago bere garaiko bilakaera politikoari. Garai horretako aldaketa eta gorabehera guztiak bere obran islatzen ditu: antzinako erregimena, liberalismoa, absolutismoa...

Lehen obrak Tapizen Errege Fabrikarako kartoiak izan ziren. Gai kostunbrista herrikoiak eta rokoko-ukitukoak erabili zituen. Helduaroan, Madril, Goyak gortean ospea lortu zuen nobleen erretratuen egile moduan. Bestela, Goya Independentzia Gerraren lekuko aparta izan zen, eta *Gerraren izugarrikeriak* izeneko akuaforte sailean islatu zuen. Azken aldi frantsesen kontrako borrokaren bi obra historiko enblematico egin zituen: *1808ko maiazaren 2a Madril* eta *Maiazaren 3ko fusilamenduak Madril*. 1820 eta 1823 artean, Goyak *Pintura beltzak* izenekoak egin zituen Quintas del Sordo etxeke paretetan. Gau-eszenak eta munstro-itxurako irudiak irudikatu zituen, geroago surrealisten



ARTEAREN HISTORIA

HISTORIA DEL ARTE

eta espresionisten interesa piztuko zutenak. 1823an Bordelera joan zen. Frantzian bere burua aske eta lasai sentitu zuen, eta haren pintura adeitsu bihurtu zen, argitsua, pintzelkada askekoa. *Bordeleko esne-saltzailea* obrak inpresionismoa iragartzen du. Hiri hartan hil zen 1828an.

Koadro honek gertaera historiko bat kontatzen du. 1808ko maiatzaren 2an soldadu frantsesak Madrilén sartu ziren; hurrengo gauean, 3an, soldaduek herri matxinatuaren kontra egindako fusilamenduak irudikatzen ditu koadroak. Goyak gerra amaitu ondoren, 1814an, pintatu zuen. Orduan, gerrako gertaera heroikoen goraipamena egiten hasi zen literaturan eta pinturan. Goyak berak Inkisizio tribunaletik pasatu zen, baina bere adinak eta ospeak aske ateratzen lagundu zioten.

Protagonista Madrilgo herria da, jende multzoa, eta multzo horretatik heroi anonimoak nabarmentzen ditu. Gaia tratatzeko era guztiz berria eta iraultzailea da, erromantikoa. Exekuzio-pelotoiaren aurrean, herritar-talde bat azaltzen da; ez dago jeneralik, ez ofizialik, ez dago gerraren aldeko goraipamenik. Izutuak, multzo batean aurre egiten diote heriotzari. Erdian, belaunikatuta eta argitasun bereziz nabarmenduta, herritar anonimo batek besoak altxatzen ditu bere amorrua eta defentsa-ezintasuna azaldu nahian. Beste herritar batzuek, burumakur, aurpegi osoa estaltzen dute.

Lehen planoan, lurrian, fusilatutako gorpuak daude, eskortzo handian kokaturik eta odolez inguraturik. Exekuzio-pelotoia ere masa jarraitu gisa tratatuta dago; han ere ez dago ofizialik, heriotza-makina moduan tratatuta daude soldaduak, aurpegiarik gabe. Diagonal itxi bat osatzen dute, zeinak eszena pelotoiaren ikuspegitik ikustera behartzen baitu ikuslea. Hondoan, gizakiei protagonismoa ez kentzeko, kolore-mantxan eginak daude mendia eta arkitekturaren profilak.

Argiari berebiziko garrantzia ematen dio Goyak. Gaueko eszena da, eta lurrian dagoen farolak argitzen du eszena. Argi horren islak zenbait tokitan dirdira bereziak eragiten ditu, batez ere besoak altxatuta duen gizonarengan.

Marraskia oso sinplifikatuta dago, forma sinple eta espresiboak bilatuz. Keinuaren irudikapenari lehentasuna ematen dio unearren dramatikotasuna indartzeko. Horretan, espresionismoaren aurrekaria izango da.

Kromatismoa oso aberatsa da. Koloreak ilun samarrak dira, baina gorrixkak, horrixkak, zuri edo beltzekin kontrastatuak agertzen dira.

Oro har, estiloa oso askea suertatzen da, forma abozetatuak baina guztiz adierazkorrak lortuz.

Koadroa gerraren aurkako dokumentu plastikoa da zalantza barik, gerraren izugarrikeria salatzen duena. Gizatasun handiz daude tratatuak galtzaileak, eta, irabazleen nagusikeria eta galtzaileen ezintasuna erakutsiz, Goya biktimen alde jartzen du ikuslea. Beraz, Goyak obra honetan gerraren kontrako alegatua egiten du. Tamalez gaurkotasuna galtzen ez duen salaketa izanik, koadroa sinbolo bihurtu izan da, eta hainbat pintore erreferentziatza hartu dute beren momentuko salaketaren oinarria izateko: Manet, Picasso.

<https://arteamendillorin.blogspot.com/search/label/17.Goya>

2. atala:



**PROPOSATZEN ZAIZKIZUN BI GAI HAUEN ARTETIK BAT GARATU
BEHAR DUZU: (5 puntu).**

A.- Euskal eskulturagintza XX. mendean.

ERANTZUNA

Eskulturaren Euskal Eskola

Aurrekariak

XIX. mendearen amaieran eta XX.aren hasieran, tradizioarekin eta akademizismoarekin eteten hasi ziren euskal eskultoreak. Bi izen ditugu nagusi garai horretako euskal egoera artistikoan, Paco Durrio (1868-1940) eta Nemesio Mogrobojo (1875-1910). Lehenengoa Gauguin-en lagun mina zen, eta klasizismoa gainditzea lortu zuen *Monumento a Arriaga* (Bilbo) lanarekin. Durrio izan zen eskultura sinbolismoaren eta modernismoaren hizkuntzetara moldatu zuen lehenengoa. Mogrobojok, aldiz, eragin modernista eta Rodin-en aztarna nabaria uztartu zituen.

Eskulturaren Euskal Eskola

50eko hamarkadan gertatu zen benetako sormen-mugimendua, nazioartean ere garrantzia izan zuena, eta *Eskulturaren Euskal Eskola* moduan ezagutu zenaren sorburua izan zen. Mugimendu honi belaunaldi ere deitu diezaiotegu, eta ildo bereziki abstraktuari ekin zion. Sentsibilitate bereko eskultore-talde bat bildu zen, eta euren artean aldeak handiak izan baziren ere, ezaugarri komunok zituzten: hizkuntza abstraktua da nagusi, handitasuna atsegin dute, hertsiki lotuak daude naturarekin eta gizakiarekin, eta egurra, harria edo burdina bezalako materialak erabiltzen dituzte.

Eskultore-talde honetan eragina izan zuten XX. mendean zehar izandako korrante artistikoeak, eta erabili zuten lengoaia originalean abangoardiako mugimendu batzuen sintesia egin zuten (konstruktibismoa, abstrakzioa...), beti ere norberaren interpretazioarekin.

Talde hartako kide izan ziren, besteak beste, Néstor Basterretxea (1924), José Alberdi (1922), Ricardo Ugarte (1942), Agustín Ibarrola (1930), Remigio Mendiburu (1931-1984), V. Larrea (1934). Baina Jorge Oteiza eta Eduardo Chillida izan ziren mugimendu honetako ordezkari nagusiak eta euren garaikide izan zirenetan eragin handiena izan zutenak.

Oteiza eta haren lanak

Jorge Oteiza Embil (Orio, 1908 – Donostia, 2003).

Oteiza da, inongo zalantzarik gabe, XX. mendeko sortzaile euskaldun adierazgarrienetako bat. Zaila da haren lana definitzea, izugarri pertsonala baita. Oteizaren eskulturak XX. mendearen hasierako abangardia artistikoetan errotzen dira, batez ere *neoplastizismoan* eta *konstruktibismoan*; era berean, II. Mundu Gerra osteko artisten moduan, sentiberatasun berezia sentitzen du abstraktua, espirituala eta humanista den horrekiko.

Oteiza 30eko hamarkadan hasi zen lanean, eta lehen lanak figuratiboak ziren. Hego Amerikan egindako egonaldia ostean, 1947an itzuli zen, euskal arte



ARTEAREN HISTORIA

HISTORIA DEL ARTE

berria bultzatzeko asmoz. Hainbat agerpen artistikotan hartu zuen parte. Esate baterako, Arantzazuko basilikako estatua-lerroa; proiektu horretan, erlijioa despersonalizatzen da, irudiak hustu egiten dira, eta espaziora irekitzen direnez, eduki espiritualetan betetzen dira.

Arantzazuko lanetan Oteizak burututako estiloa 50eko hamarkadan garatu zen, eta izaera herritar sendoa zuten lanak ziren, konnotazio espiritual sakonekoak. “*Arantzazuko apostoluen frisoa*” izan zen Oteizaren lehen garai figuratibo eta antropomorfo horretako lanik garrantzitsuenak.

Orditik aurrera, Oteizak espresionismoa eta figurazioa alde batera utzi, eta abstrakzioaren bidea hartu zuen, ikerketa geometriko arrazionala oinarri hartuta eta formaz baino gehiago, formen arteko espazioaz arduratuz. Hala, espirituzko esanahi sakona duen hutsaren estetika landu zuen.

1957an Eskulturaren Nazioarteko Saria jaso zuen Sao Pauloko IV. Bienalean, aurkeztu zituen familia esperimentaleko 28 eskulturei esker; katalogo bat ere argitaratu zuen, *Propósito experimental 1956-57* izenekoak; bere lanen printzipio teorikoak biltzen dira bertan. Sao Pauloko sariaren ondoren hutsak eta isiltasunak bere lanean irabazten ari ziren garrantziaz hausnartu zuen Oteizak.

1959an artistak eskultura utzi eta artista-taldeak bultzatzeari eta sortzeari ekin zion, hala nola *Gaur* talde garrantzitsua. Euskal kulturarekin duen konpromisoak bultzatuta, euskal kultura defendatzeko mugimendu eta jardueren gidari bihurtu zen. Testuinguru horretan sortu ziren Euskal Eskolaren taldeak. Aipatutako *Gaur* taldea izan zen aktiboena.

Hirurogeiko hamarkadan ikerketa estetiko eta linguistikolari ekin zion, eta esparru horretan egindako lana *Quosque tandem!* lanean argitaratu zuen (1963), edo *Ejercicios espirituales en un túnel* lanean (1965).

1972 eta 1975. urteen artean eskulturagintzara itzuli zen, eta serie esperimental batzuk egin zituen. Bere azken garaian, atzera begiratu *minimalismo* amerikarrarekin lot zitekeen; hain zuzen ere, artistaren garai sortzailearen ostean sortu zen mugimendurekin. Oteizaren ekoizpenean aurkitu ditzakegu, besteak beste, monumentu-monolitoak (*Preso politiko ezezagunaren monumentua*) eta kutxa edo eraikin geometriko eta desokupatuak (*Kutxa metafisikoa*): murriztasunaren burutzea eta hutsaren protagonismoa islatzen dute.

Chillida eta haren lanak.

Eduardo Chillida Juantegui (Donostia, 1924 – Donostia, 2002).

Eduardo Chillidaren lehen lanak figuratiboak dira, harrian edo igeltsuan zizelkatuak. Lanek arkaismo grekoaren eta kouroi-en eragina dute; adibidez, *Tortsoak* seriea. *Henry Moore*-ren arrasto garaikidea ere ageri dute; atzerrira egindako bidaietan ezagutu zuen. Baina Chillidak berehala utzi zuen alde batera antropomorfoa dena eta erabat murgildu zen abstrakzioan.

1950ean Hernanin kokatu zen, eta han material berri batekin jarri zen harremanetan, burdinarekin; hala, errementari batekin hasi zen lanean, forjaketan. Burdina euskal artisautza tradizionalarekin konbinatu eta esperimentatzeko bide emankor bat ezagutu zuen. Burdinazko lehen pieza, *Ilarik*, egin zuen. 1954n, Oteizarekin batera egin zuen lan Arantzazuko basilikan,



ARTEAREN HISTORIA

HISTORIA DEL ARTE

eta burdinazko lau atek egin zituen, bere horretan eskultura diren horiek. Horrela hasi zuen Chillidak abstrakzioaren ibilbidea. Naturaz duen ikuspegia kontuan hartuta, 1963an beste material batzuk erabiltzen hasi zen, hala nola zura, alabastroa, hormigoia, buztina edo, aurrerago, baita portzelana ere. Orain, haren lan handiaren gehiena *Chillida Leku* museoan ikus daiteke, Hernaniko Zabalaga baserrian.

Chillidaren formak: hala modu pertsonalean nola maila gizatiarrean lan egiten zuenean, barne-dekoraziorako piezak egiten zituenean nahiz espazio publikoetarako lanak sortzen zituenean, guztietan ere masa eta bolumenen etengabeko jokoak aurkitzen ditugu, gauzen mugan egoteko erakusten zuen kezka adierazle; bolumenaren eta espazioaren arteko muga nahiz bien artean dagoen lotura bilatzea zuen helburu.

Chillidaren lanaren ezaugarria da espazio irekietan sartzen dela, haiekin bat egiten duela haien parte izateko. Horrela, bada, eskulturek museoetako presondegietatik ihes egiten dute, "kalea bereganatzen dute" eta edozein pertsonarengana gerturatzen dira, hark horrela nahi badu. Esate baterako, *Haizearen orrazia* Donostian; *Horizontearen gorazarrea*, Xixonen; *Gasteizko Foruen Enparantza*; *Askatasunaren atea*, Bartzelonako auzo gotikoan; eta agian haren lanik enblematikoena, *Gure Aitaren Etxea*, Gernikan.

B.- Barrokoa Italian:

- Bernini eta Borromini.

ERANTZUNA

XVI. mendearen bukaerako eta XVIII. mendearen hasiera bitarteko arteari esaten zaio barrokoa. Izatez mespretxuzko hitz gisa sortu zen. Barroko hitza neurritz kanpoko, gusturik gabeko... kontzeptuen sinonimotzat hartu izan da. Klasikotasunaren harmonia, edertasuna eta oreka hausten zuenez, gainera orijinaltasunik gabe, XX. mendearen hasiera arte ez zen hasi barrokoarekiko interesa. Ordura arte ez zen ulertu klasikotasunaren aldean desberdina zela, ez hobe, baina eskasagoa ere ez. Gainera, bere gizartearen kezka, asmoak eta ikuspuntuak agertzen zituen. Klasikotasunak ezin zuen bere orekan, bere harmonian, gizarteak bizi zituen gainbeheratze eta kezka berriei erantzunik eman. Zentzu zabalean ere erabiltzen da barroko hitza, ez soilik garai artistiko batekin lotua. Gehiegizkoa, gainkargatua dagoenean esaten da.

Gu, berriz, XVII. mende osoan eta XVIII.aren estreinako hamarkadetan Italian sortu eta Europa eta Hego Amerikara zabalduta arituko gara. Krisis jositako aro horretan gosea eta pobrezia behin eta berriz agertzen ziren. Merkaturia suspertzen hasia zen, baina gizartea estamentalak izaten jarraitzen zuen, eta lurra zen oraindik ekonomiaren oinarria, nahiz eta zenbait herrialdetan goraka zihoan burgesiak bultzaturiko merkataritzak sekulako indarra hartu zuen. Gainera, mendeotan estatu nazionalak indartu ziren, eta gailurra jo zuen



ARTEAREN HISTORIA

HISTORIA DEL ARTE

Jainkoak emandako boterean oinarritutako monarkia absolutuak. Erregeak botere handia zuen bere herrialdean, elizak fededunengan zuenaren parekoa, obediencia osoa inposatzen zuen, bere jauregiekin eta gobernu-eraikinekin menpekoak liluratuz.

XVII. mendeko Europa zatituta zegoen: protestanteen Erreformari erantzunez, Kontrarreforma katolikoa sortu zen, Trentoko Kontzilioak egina (1545-1563). Horrek bitan banandu zuen Europa, eta zatiketa berberari artean antzemango zaio.

Herri katolikoetan barrokoa Elizaren esanetara jarri zen, haren helburua Erreforma geldiaraztea eta katolikotasun berri bat eraikitzea zirela. Galtzear zeukan izen ona berreskuratzea eta jendetsuago bihurtzea. Trentoko Kontzilioak doktrinako zalantzak argitu eta aita santuaren boterea indarberritu zuen. Hortik aurrerako helburua propaganda izango zen. Horretarako, Eliza herrikoia egin zen, baita sentimentalago ere; zirrarak eta sentimenduak landu ziren, eta ez kontzeptu filosofiko erlijioso konplexuak. Arteak bihotza ukitu behar zuen, eta zentzumenak harrotuz ikuslearengana iritsi.

Hala, barrokoa ez da bakarrik formen aldaketa bat, Errenazimentuaren gainbeheraren ondorioz gertatu zen mentalitate-aldaketa sakona baizik. Erlijioa zen ziurtasun gabeko garai hartan erantzuna eman zezakeen bakarra. Izan ere, gizakia kreaio guztiaren zentrotzat hartzen zuten teoriak pitzatuta zeuden. Errenazimentua gizakiaren garaipena izan zen, bera errege eta ardatz baitzen, dena izatera eta ulertzera iritsi zitekeena. Barrokoa beste era batekoa izango da. Joanak ziren aurreko mendeetako hazkunde demografikoa eta ekonomikoa; joana ere orduko kulturak bere buruaren egiazkotasunean zuen ziurtasuna. Orduan, gizateriak bere txikikeria eta babes falta sentitu zuen; bizitzaren iragankortasuna eta heriotzarekin duen mendetasuna. Alde horretatik, barrokoaren ezaugarri nagusia anbiguotasuna izan zen. Garaiko artistek Errenazimentuaren oinordekoak zirela aldarrikatu zuten eta aro hartako arauak onartzen zituztela, baina egia da behin eta berriro hautsi zituztela arau horiek. Errenazimentuan oreka, neurria, apaingarri-urritasuna, arrazionalismoa eta logika nagusitu baziren, hemen mugimendua, kontrastea eta arte guztien nahasketa ausartak maite zituzten. Dramatikoa, neurri gabekoa eta gehiegikeriaren zalea.

ARKITEKTURA BARROKOA

Barrokoan arkitekturaren mende jarri ziren arte guztiak, sinbiosi bat eratuz eta ilusioa eragiten zuen errealitate berri bat sortuz. Horrez gainera, ez da nahikoa eraikin bakoitzaren edertasuna eta harmonia, ingurukoekin harremanetan egon behar zuen. Eraikina espazio urbanistikoan sartzen da: plazak, lorategiak, iturri handiak... Hala, hirigintza kontzeptua sortzen da.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK GORAKOAK

2022ko MAIATZA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2022

ARTEAREN HISTORIA

HISTORIA DEL ARTE

Arkitekturaren elementu guztiak (euskarriak, sostengatuak eta apaingarriak) klasikotasunetik jasoak dira, baina Errenazimentuak elementu horiek lege eta proportzio jakinetan erabili bazituen, orain barrokoak askatasunez eta elementu funtzional horien izateari utzi eta dekoratiboak bihurtuz erabiltzen ditu. Mugimendua, dinamismoa, argi-jokoak, handitasuna eta ikuspegi desberdinen bilaketa dira funtsezko ezaugarriak.

-Mugimendua: Hormak okertu egiten dira, eraikin osoa mugitzen dela emanez. Zutabe salomonikoak ondo laburbiltzen du haien asmoa. Estaldura gangatuak oro har, izugarritzko kupulekin. Frontoiak zatitu eta kurbatu egiten dira, kurbak eta lerro zuzenak nahastuz. Oinplano konplexuak dira, eliptikoak, lerro nahasiak erabiltzen dituztenak... Fatxadak konkaboak eta konbexuak dira, hirigintzari guztiz loturik. Sortzen duen barne-espazioa zabala da, giza neurria ukatzen duen handitasunaren efektua lortzeko. Dena apainduriaz beterik dago, piktorikoak zein eskultorikoak; horrela, mugak galtzen dira, eta ezin da jakin elementu bakoitza non hasi eta bukatzen den: Borromini-ren San Carlo alle Quattro Fontane.

-Argiluna: Oinplanoetako eta gainazaleko hausturek sakontasun- eta iluntasun-jokoak sortzen laguntzen diote argiari, kontraste bortitzak batzuetan. Gainera, kolore edo ñabardura desberdineko marmolak erabiltzeak eta efektuak bilatzen duen dekorazio polikromatikoak ere eragina dute argilun-joko horietan. Horren adibidea Berniniren Kirinal-eko San Andres eliza: oinplano eliptikoa eta kapera erradialak ditu. Fatxadan kurba eta kontrakurbadun artearen jokoa dago, aldi berean eraikina hiri-espazioarekin lotuz.

-Handitasuna: barruan zein kanpoan, elementu guztiek asmo hori lortzera bideratzen dira: ordena erraldoia, hirigintzaren efektu bisuala, dekorazioa, materialak, eskulturak eta pinturak... Adibidea, Maderno (1556-1629), Vatikanoko Done Petri elizaren amaiera, ordena erraldoiko fatxada klasikoa duena.



ARKITEKTURA BARROKOA ITALIAN

Arte barrokoa leku askotan garatu zen arren, Erroma izan zen haren gune nagusia, garrantzi handia baitzuen hiri hark politikan eta, batez ere, erlijioan. Bereziki gailendu ziren Maderno, Borromini eta, beste gainerakoen gainetik, Bernini arkitektoak.

- Gian Lorenzo Bernini (1598-1680)

Arkitekto, eskultore, diseinatzaile, eszenografo eta pintore paregabea. Klasizismoari adierazkortasun handia eman nahi zion, protestantismoaren astinduei aurre egiteko aitasantutzak eskatzen zuen efektismoa lortuz. Monumentu-irudia areagotu nahi izan zuen, lerro-jokoen bidezko efektuak sorraraziz eta elementu konkaboak aurkeztuz.

Lehenago aipatutako Kirinal-eko San Andres elizaz gainera, haren lan nagusiak hauek dira: Done Petri plazako kolomadia (1657): Berninik Vatikanoko Kontrarreformaren sinbolo bihurtu zuen, eta, horretarako, Done Petri plaza itxi zuen elizaren aurrealdean handitasunagatik harritzen gaituen zutabez osatutako elipse bat sortuz. Besoek ere balio sinboliko paregabea zuten, Eliza amaren besoak irudikatuz fededun katolikoa bere baitan onartuz.

Vatikanoko baldakinoa (1624): estilo artistikoen nahasketaren adibide onenetarikoak. Han arkitektura eta eskultura batzen dira, mezu alegoriko garbia helarazten duen ikuskizun paregabea eskainiz. Alde batetik, kupularen azpian egonda, itzelezko efektu teatrala lortzen du, eta bestaldetik daukan elementuengatik (Antzinatetik lehenengo aldiz zutabe salomonikoa erabiltzen dela) estetika berri baten propaganda ikusten da. Arkitektura eskultura bezala tratatzen du, eraikuntzazko funtzio barik. Horretan mugimendua eta argi-jokoak ez dira dekorazioarekin lortzen, arkitekturak berak sortzen baititu. Brontze urreztatuan eginda dago, eta Done Petriren hilobiaren gainean dago, kupula handiaren azpian.

- Francesco Borromini (1599-1667)

Berninirekin parekatu daitekeen arkitekto bakarra. Berak arkitektura eskultura bezala lantzen zuen, mugimendu eta kontrastez betea, baina efektu horiek ez zituen apaingarriekin lortzen; eraikuntzaren masek berek sortzen zituzten, ordea. Fantasia eta gaitasun tekniko handiko arkitektoa izan zen, eta haren berrikuntzak Europa osoan imitatu ziren. Lan gehienak erlijio-ordenetarako egin zituen, txikiak eta material pobrez, baina horrenbeste askatasunarekin eginak ziren, ezen, garaikide askorentzat, Bernini tartean, eskandalagarriak izan baitziren: taulamendu kurbatuak, kupula eliptikoak, izar-itxurako oinplanoak...

-San Carlo alle Quattro Fontane. Haren fatxada berezian bi atal daude, eta bigarren mailako gorputza ez dator bat barruko eraikinarekin. Oina ez da simetrikoa, eta ertzeko kantoi ebakiarekin jokatu zuen Borrominik hartan iturri bat



ARTEAREN HISTORIA

HISTORIA DEL ARTE

egokituz. Kupularen oinarria eliptikoa da, eta hexagono eta gurutze-itxurako kasetoiak ageri ditu aldizka, immaterialitate-sentsazioa sorraraziz.

Beste obra interesgarri batzuk: Sant'Ivo alla Sapienza, Barberini jauregia eta Spada jauregiko perspektiba-joko behartuak.

EDUKI-BLOKEEN EZAGUTZA-ADIERAZLEEI DAGOZKIEN ARIKETEN ADIBIDEAK

MULTZOA	EZAGUTZA-ADIERAZLEAK	ARIKETAK
1	1	1.A, 1.B, 2.B
2	2	1.A, 1.B, 2.A, 2.B
	3	1.B, 2.B
	4	1.A, 1.B, 2.A, 2.B
	5	1.A, 1.B,
	6	1.A, 1.B, 2.A, 2.B
	7	2.A, 2.B
	8	1.A, 1.B, 2.A, 2.B
	9	1.B
	10	1.A, 1.B